

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIORECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEO

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO Y VIVIENDA

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2012-2013 ikasturterako lehen matrikula egiteko tasak % 4 igoko dira

*Konpentsatzeko, Nafarroako Gobernuak beken sistema ere handituko du titulazio esperimentaletako bigarren matrikuletarako, zailagoak direlako*

Viernes, 13 de julio de 2012

Hezkuntza Departamenduak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin izandako harremanen ondoren, lehen matrikula egiteko tasak eguneratu eta % 4 igotzea erabaki du datorren 2012-2013 ikasturterako. Unibertsitateko gainerako matrikuletarako Estatuko Gobernuak zehaztutako legezko gutxieneko tasak aplikatuko dira ([5.2. artikulua, apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretukoa, hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa](#)).



Nafarroako Unibertsitate Publikoaren kanpoaldea

Konpentsatzeko, Nafarroako Gobernuak, datorren ikasturtean, unibertsitateko ikasleentzako beka lehenengo matrikula dutenei emateaz gain, titulazio esperimentaletako (ingeniaritza, adibidez) bigarren matrikula duten ikasleei ere emango dizkie, ikasketa horien zailtasuna kontuan hartuz.

Antolamendu horren bidez, Hezkuntza Departamenduaren asmoa zuzentasun-printzipioak bermatzea da, ikasleek unibertsitateko ikasketak amaitzeko eragozpenik izan ez dezaten errenta edo arazo ekonomikoak direla-eta. Halaber, errendimendu akademikoa eta ikasketetan bikaintasuna sustatzea da asmoa, unibertsitateko ikasleentzako ekarpen soziala eraginkorragoa eta handiagoa izan dadin errendimendu akademiko hobearen dutenen kasuetan.

### Lehenengo matrikulen prezioak

Datorren ikasturteko graduatarako lehenengo matrikulen kredituko prezioak hauek izango dira:

- ikasketa esperimentalak: 22,24 euro
- esperimentalak ez diren ikasketak: 15,70 €

Datorren ikasturteko zikloetarako lehenengo matrikulen kredituko prezioak hauek izango dira:

- ikasketa esperimentalak: 18,93 euro
- esperimentalak ez diren ikasketak: 13,36 €

Jarduera profesional erregulatuetan aritzeko aukera ematen duten masterren kasuan, lehenengo matrikulen kredituko prezioa 27,34 euro izango da. Gainerako masterren kasuan, kredituko 43,75 euro izango da prezioa.